

4. EGITURA SOZIALA

4.1.-Egitura eta Elkarrekintza sozialak.

Gizakion artean ditugun harremanak molde egonkor eta iraunkorretan antolatzen ditugu. Molde horiek osatzen dute gizartearen egitura edo **egitura soziala**. Gizakiok eta giza-talde ezberdinak elkarren artean nola lotzen diren egitura sozialak definitzen du.

Edozein harreman sozialean batek zerbait egiten duenean besteon erantzun jakin bat espero dugu, elkarren arteko eragina dago. Bakoitzaren jokabideak besteon jokabidearekin lotura estua izaten du, hau da, ekintza sozial gehienak **elkarrekintza sozialak** dira.

Mota askotako harremanak daude:

- Azal-azalekoak/sakonak
- Formalak/informalak

Lehen pausoa elkarrekintza sozialetan **egoeraren definizioa** lortzea da. Kulturak eskaintzen dizkigu egoerak ondo definitzeko elementuak. Jendearen arteko harremanak nolakoak diren eta bakoitzaren jokabidea nondik nora joan behar den. Batzutan ez dago argi eta partaide guztien artean eraiki behar da egoeraren definizioa.

Elkarrekintza sozialak antzeppenaren moduko ekintzak izaten dira non gidoiren ildo nagusiak kulturak eskaintzen digun. Gure jokabidea besteon aurrean (ikuslegoa) eta bakarrik gaudenean (oihalaren atzean) oso ezberdina da. Egoeraren definizioak nolabaiteko hipokrisia edo itxurakeria eskatzen du.

Egoeraren definizio horietan berebiziko garrantzia izaten du **norbere buruaren aurkezpena**. Jantzera, itxura fisikoa, apainketa, e.a. guk kontrolatzen ditugun elementuak izaten dira eta lehen inpresio bat emateko funtsezkoak izaten dira.

4.2.-Talde sozialak.

Normalean gure harreman sozialak talde edo erakunde baten barruan ematen dira. Edozein gizakien taldea ez da talde sozial bat. Batera dagoen jendea euren artean elkarrekintza sozialik ez badago ez da talde bat izango. **Talde sozialak** honako ezaugarriak dituzten gizakion multzoak izango dira:

- Nortasun amankomuna
- Ohiko elkarrekintza soziala
- Egituraketaren bat
- Oinarrizko adostasuna balore, helburu, sinbolo eta arauetan.

Taldeak sailkatzerakoan egiten den banaketarik inportanteena talde primario eta sekundarioen artean da.

Talde primarioak

Talde txikiak izaten dira. Lotura afektibo sakonetan eta harreman pertsonal jarraituetan oinarritzen dira. Harremana bera izaten da taldearen helburua eta interes amankomuna. Hurbiltasun handiko taldeak izaten dira. Partaide gutxi izaten dute eta bakoitza ordezkazina da. Talde nortasunaren sentimendua oso argia izaten da. Familia, koadrila, erakundetan sortzen diren kideen talde informalak, izaten dira honen adibideak. Gure nortasunaren iturri eta babesa izaten dira.

Talde sekundarioak

Helburu jakin eta mugatu baterako sortzen diren taldeak izango dira, hau da, talde instrumentalak izango dira. Gure nortasunaren atal bat baino ez da murgilduko bere ekintzatan. Ez dago inplikazio afektiborik. Kide guztiak erabat ordezkagarriak izaten dira. Erakunde formalak dira honen adibiderik argiena.

4.3.-Rola eta statusa.

Egitura sozial orokorrean edo talde jakin baten egituran kidentzako dauden kokapen ezberdinak, egitura horretako **statusak** dira.

Rola status bati dagokien eskubideak, eginbeharrak, eta kulturalki definitutako jokabide itxaropenak izango dira.

Status baten kokatuta gaude eta rol batzuk betetzen ditugu.

Statusak nolabaiteko hierarkiarekin lotzen dira. Bi motatakoak bereizten dira:

-emandakoak: adina, sexua, azalaren kolorea, senidetasuna, naziotasuna.

-lortutakoak: ikasketak, lanbidea, irabaziak, e.a.

Aldi berean hainbat erakunde eta egituratan hartzen dugu parte; hori dela eta, hainbat status ezberdinetan egongo gara kokatuak baina beti egoten da bat gu identifikatzeko balio duena. Horri **status nagusia** deritzogu. Gure gizartean lanbidea izaten da status nagusia kasu gehienetan.

Rolak oso baliagarriak izaten dira jokabideak aurrera eramateko. Eredu ulergarri bat eskaintzen dute mundu guztiarentzat. Sozialki oso ondo identifikatuak egoten dira. Baliagarriak gertatzen zaizkigu jendea kokatzeko (bere statusa asmatzeko).

Rolaren tentsioa: Eginbehar kontrajarriak eskatzen duena.

Rolen arteko gatazka: Status ezberdinak eskaera kontrajarriak dituztenean.

Rolaren urruntasuna: Inplikazio afektiboak saihesteko.

Rol multzoa: Status bakar batekin lotutako rol ezberdinak.

4.4.-Erakunde formalak.

Helburu zehatzak dituzten talde sozial sekundarioak dira **erakunde formalak**. Honako ezaugarri hauek izaten dituzte:

- 1) Lana eta eskuduntzen banaketa argi bat, eraginkortasun handia izateko erakundearen helburuak lortzerakoan.
- 2) Boterearen kontzentrazioa zuzendaritza txiki batean.
- 3) Kide aldagarriak
- 4) Arau eta prozedura argi batzuk (gehienetan idatziak), zehaztutako helburuak lortzeko.

Egituraketa formal horrezaz gain beti sortzen dira egitura informalak egoera asko konpontzeko. "Giza ukitua" horien bidez lortzen da.

Erakunde formalen eredu nagusia **burokrazia** da.

Erakunde formalak oso handiak direnean arazo nagusia lanaren koordinazioa izaten da. Hori lortzeko hainbat mekanismo erabiltzen dira: kideen arteko egokitzapena, ikuskaritza zuzena, estandarizazioa: lan prozeduratan, emaitzatan eta kideen prestaketan.

4.5.-Instituzioak.

Instituzioak izaten dira egitura multzo egonkorak, gizartearen oinarrizko beharrak betetzeko antolatzen direnak. Familia, hezkuntza sistema, erlijioa, egitura politikoa, sistema ekonomikoa, komunikabideen sarea; horiek dira gizarte gehienetan ematen diren instituzio nagusiak. Status, rol, eta talde egituren multzo bat izango dira instituzioak. Ezaugarriak:

- Kanpoko errealitateak dira, hau da, zerbait objektiboa dira.
- Koertzitiboak dira (gauzak zuzen egiteko modua esaten digute)
- Historikotasuna dute
- Autoritate morala dute (onartu egiten da bere ahalmena)

Familia

Ahaidetasunezko elkartea, haurrak hazteaz eta beste zenbait oinarrizko giza premiaz arduratzen dena.

Funtzio sozialak:

- Maitasuna eta babes afektiboa
- Bizitza sexuala bideratzeko modu bat
- Erreproduktzioa
- Seme-alaben gizarteratzea
- Ekonomikoa: haurrei eta ezinduei bere beharrak asetzea
- Hainbat status ematea (nazionala, etnikoa, erlijiosoa eta senidetasunarena familiatik datoz.

Familiaren egitura: Monogamia, poligamia (poliginia edo poliandria)

Nuklearra/hedatua (zabala)

Ezkontza mota: neolokala, patrilokala, matrilokala